



## BARNE EHUN-PRODUKTUAK – Maila aurreratua

Prozedura irekiaren bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

### 1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

#### 1.1. Kontratuaren xedea

##### 1. Koadroa

Kontratu honen xedea ehun-produktuak erostea da.

Laneko segurtasuna eta osasuna ziurtatzeko eta ingurumen-inpaktuak murrizteko, berme hauek beharrezkoak dira: azken produktuak substantzia kaltegarriarik ez izatea, produktuaren fase guztietan langileen giza eskubideak eta eskubide unibertsalak errespetatzea eta, ingurumen-kalitateari buruzko gutxienezko irizpideak ezartzea.

#### 1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapan teknikoak eta zehaztapan baloragarriak

##### 2. Koadroa

Eskaintzen diren produktuen % 50ek, gutxienez, Oeko-Tex 100<sup>1</sup> ziurtapenean edo baliokidean zehaztutako eskakizunak betetzen dituzten zuntzez eginak izan behar dute % 100ean.

Produktu-portzentajea handiagoa izatea baliotsiko da.

*Produktu bakarra erosi gero, administrazioak exijitu behar du produktuaren zuntzek Oeko-Tex 100-en edo baliokidearen<sup>2</sup> irizpideak betetzea.*

<sup>1</sup> [https://www.oeko-tex.com/en/business/certifications\\_and\\_services/ots\\_100/ots\\_100\\_start.xhtml](https://www.oeko-tex.com/en/business/certifications_and_services/ots_100/ots_100_start.xhtml)

<sup>2</sup> Produktu bakarra erosi bada, administrazioak erabaki behar du Oeko-Tex 100-eko irizpideak bete behar dituen, edo esleipen-irizpideak bakarrik. Maila aurreratua eskatuko da, eta gomendatzen dugu nahitaezkoa izatea.

### 3. Koadroa

Produktu bakoitzean:

- Balioetsiko da Europar Batasuneko Etiketatze Ekologikoaren<sup>3</sup>, Beltxarga Zuriaren<sup>4</sup> edo antzekoen ehun-zuntzei eta produktu kimikoei buruzko irizpideak betetzen dituzten zuntzen %, pisuan.
- Eskainitako produktuaren zuntzen edo elementu birziklatuen portzentajea pisuan. Ekoizpen-hondarretatik, ehungintzatik, jantzigintzako ebakinetatik eta kontsumitu ondorengo ehun-hondakinetatik eratorriak dira zuntz birziklatuak.
- Balioetsiko da nekazaritza ekologikoko zuntz naturalez egindako produktuaren portzentajea pisuan, estandar hauen arabera: Europako Batasuneko 834/2007 zk.-dun EEE araudia, AEBko Nekazaritza Saila-USDArenak (*National Organic Program*-en arabera) edo nazioarteko IFOAM erakundearena edo horren baliokideena.

### 4. Koadroa

Produktu guztietan:

- Oinetakoehun- osagaietako **formaldehido** libre eta zati batean hidrolizagarriaren kantitateak ez du izan behar 75 ppm baino handiagoa azala ukitzen duten jantzietan, ezta 300 ppm baino handiagoa ere gainerako produktuetan, EN ISO 14184-1 arauaren edo arau baliokidearen arabera.
- Ez da **asbesto**-zuntz hondarririk egongo amaierako produktuan.
- **Berun-, kadmio-, kromo- eta merkurio-kantitateek** (metal astunak) ez dute izan behar balio hauek baino handiagoak: 1, 0.1, 2 eta 0.02 ppm, soluzio baten absortzio atomikoko espektrofotometria, ICP edo espektrometria bidez neurtuak, ISO 105-E04 arauaren edo arau baliokide baten arabera.

<sup>3</sup> Ehungintza produktuak. Uztaila 2009.

<http://eurlex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2009:197:0070:0086:ES:PDF>

<sup>4</sup> Textils, skins and leather. Version 3.3 March 2004.

<http://www.ecolabel.dk/kriteriedokumenter/039e.pdf>

## 5. Koadroa

Produktuen ekoizpenean erabiltzen diren **tindagaiek edo tindagai-prestakinek** arriskuesaldi hauek (edo horien konbinazioak) dituzten edo izan ditzaketen substantzien pisuaren % 0,1 baino gutxiago izan behar dute: R40, R45, R46, R49, R60, R61, R62, R63 eta R68, 67/548/EEE zuzentarauaren arabera edo H351, H350, H340, H350i, H360F, H360D, H361f, H361d, H360FD, H361fd, H360Rd, H360Df eta H341 arrisku oharrak(edo bere konbinazioak) 1272/2008/EE zuzentarauaren arabera.

Produktuen ekoizpenean erabiltzen diren akabera-**substantzia edo -prestakinek** arrisku-esaldi hauek (edo horien konbinazioak) dituzten edo izan ditzaketen substantzien pisuaren % 0,1 baino gutxiago izan behar dute: R40, R45, R46, R49, R50, R51, R52, R53, R60, R61, R62, R63 eta R68, 67/548/EEE zuzentarauaren arabera edo H351, H350, H340, H350i, H360F, H360D, H361f, H361d, H360FD, H361fd, H360Rd, H360Df eta H341 arrisku oharrak(edo bere konbinazioak) 1272/2008/EE zuzentarauaren arabera.

## 6. Koadroa

**Garbiketan eta lehorketan, produktuen dimentsioen aldaketa-balioak** ondorengoak baino txikiagoak izan behar dira (ISO 5077:2007 arauan edo arau baliokidean ezarritako metodoen arabera):

- % 2tik gorako murrizketa edo handitzea gortinentzako eta garbitu eta zorrotik atera daitezkeen tapizentzako ehunen kasuan.
- % 8tik gorako murrizketa edo % 4tik gorako handitzea beste ehun batzuentzat eta ehundu gabeko produktu iraunkorretzat, baita puntuzko edo kizkurdun produktuentzat (eskuoihalak) ere.

Irizpide hau ez zaie ezarriko:

- «Lehorreko garbiketa» edo pareko etiketa argia duten produktuei (produktu horiek etiketa-mota hori ezarri ohi bazaie).

Produktuek **kolore-sendotasunari** buruzko balio hauek izan behar dituzte (ISO 105:2010 arauan edo baliokidean ezarritako metodoen arabera):

- Garbiketan: 3-4 maila
- Izerditzean: 3-4 maila
- Argitan: 4-5 (gortinetarako eta tapizeriarako).
- Igurtzi hezean: 2-3 maila
- Igurtzi lehorrean: 3-4 maila

Irizpide hori ez zaie aplikatuko produktu zuriei edo «lehorreko garbiketa» etiketa edo baliokidea dutenei.

### 1.2.1. Ingurumen irizpide orokorrak, zerbitzuari dagokionez

#### 7. Koadroa

Produktuak banatzean, eskaintzaileak bere gain hartu behar du garraio-bilgarrien kudeaketa, bai zuzenean berrerabiltzeko, bai gaikako bilketa egiteko.

Bilgarriak berrerabilgarriak izatea eta esleipendunak horiek biltzea balioetsi egingo da.

Eskuekin erraz bereizteko modukoak izan behar dute bilgarriek, birziklapena errazteko.

Produktuetan ahalik eta material bilgarri gutxien erabiltzea balioetsiko da.

## 2. Gauzatze-irizpideak

Kontratu-mota honetan, gaitasun tekniko eta profesionalerako irizpidetzat har daiteke laneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzeko eta giza eskubideak nahiz eskubide unibertsalak errespetatzeko bermea, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OIT)<sup>5</sup> arauen arabera.

Europako gomendioen arabera, eskakizun mota horiek kontratuaren betetze-baldintzei dagozkie. Hortaz, haiek errespetatzeko, honako klausula hau txertatzea gomendatzen da.

#### 8. Koadroa

Gaitasun profesionala egiaztatu behar du enpresak; horretarako, bermatu egin behar du LANE-ren Adierazpenean jasotako laneko printzipio eta funtsezko eskubideak errespetatuz egin direla jantzien ekoizpenean erabilitako ehunak eta berariazko materialak, baita jantziak berak ere (bertakoak edo azpikontratazio bidez eginak).

Halaber, ingurumenarekin eta laneko arriskuen prebentzioarekin bat etorri behar du enpresaren kudeaketa-politikak.

Aipatutako gaitasuna egiaztatzeko, enpresaren konpromiso etikoa adierazi behar dute eskaintzaileek (ikus X eranskina), agiri hauek aurkeztuta:

1. Azken produktuaren fabrikatzailearen datu zehatzak (enpresaren izena, helbidea, telefono-zenbakia, udalerrria, posta-kodea, herrialdea) jasotzen dituen aitortpena.
2. Zerrenda honetako edozein agiri, lanean LANE-ren funtsezko itunak betetzen

<sup>5</sup> <http://www.ilo.org/global/about-the-ilo/lang--es/index.htm>

direla frogatzeko:

- 2.1. Jokabide-kodearen ziurtagiria (SA 8000<sup>6</sup> / Fair Wear Foundation<sup>7</sup> edo baliokidea) edo
- 2.2. Kanpoko enpresa independentetek egindako ikuskaritza-ziurtagiria (enpresa ziurtagiri-emailearen izena, helbidea, telefono-zenbakia eta harekin harremanetan jartzeko datuak jarri behar dira) edo
- 2.3. Ikuskaritza enpresak berak egin badu, enpresak sortutako agiriak, erabilitako estandarrak eta prozedurak azaltzen dituztenak.

Ingurumenaren jarraipena: esleipendunak sei hilean edo urtean behin aurkeztu beharko ditu bere eskaintzan adierazitako produktuak –ingurumenarentzat egokiagoak direnak– erosi dituela erakusten duten fakturak.

### 3. Esleipen irizpideak

Esleipen-irizpideetan, elementu baloragarri bakoitzari ezarriko zaion haztapena zehaztu behar da. Ingurumen-irizpideak erabiliz erositako uniformeetan, alderdi hauek balora daitezke, besteak beste:

#### 9. Koadroa

- **Produktuen ingurumen-alderdiak eta alderdi teknikoak, % 21eraino.**
  - Oeko-Tex 100 estandarraren arabera, amaierako produktuan substantzia-mugak betetzen dituzten produktuen % handiagoa, %7raino.
  - Europako Etiketatze ekologikoan<sup>8</sup>, Beltxarga Zurian<sup>9</sup> edo baliokidean zehaztutako substantzia kimikoei, ehun-zuntzei edo materialei buruzko irizpideak betetzen dituzten zuntzen batez besteko % produktu-kopuru osoari dagokionez, [edo artikulua bakoitzetik erositako kopuruaren arabera haztatutako produktu-kopuru osoari dagokionez], % 7raino.
  - Birziklatutako elementuen batez besteko % eta/edo nekazaritza ekologikoko landare-zuntzen %, produktu-kopuru osoari dagokionez, [edo artikulua bakoitzetik erositako kopuruaren arabera haztatutako artikuluen kopuru

<sup>6</sup> <http://www.sa-intl.org/>

<sup>7</sup> <http://www.fairwear.org/>

<sup>8</sup> Ehungintza produktuak. Uztaila 2009.

<http://eurlex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2009:197:0070:0086:ES:PDF>

<sup>9</sup> Textils, skins and leather. Version 3.3 March 2004.

<http://www.ecolabel.dk/kriteriedokumenter/039e.pdf>

osoari dagokionez], % 7raino.

- **Produktuen ontzi eta bilgarrietako hobekuntzak, % 4raino.**
  - Ahalik eta bilgarri gutxien [2]
  - Berrerabilgarria [2]

Produktu bakarra erosten bada, zuzenean ezarriko dira irizpideak; kontratuan produktu bat baino gehiago badaude, ordea, irizpide baloragarriak produktu bakoitzaren arabera izango dira, eta mota ezberdinetako produktuen zenbateko osoari (kopurua) edo kantitate osoari —pisan— (produktu bakoitzeko kopurua eta kantitatea) egokitu. Irizpidea dena dela ere, baldintza-agirian zehaztu beharko da (ikus maila aurreraturako ehun-irizpideak).

#### 4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurrezpena

Eskaintzen eta aurreztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurrezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori lehiaketa-deialdian zehaztu behar da, eskaintzaileek garaiz izan dezaten.

#### 10. Koadroa

Eskaintzaileak agiri hauek aurreztu behar ditu, honela:

1. **Ingurumen-eskakizunen egiaztapen-zerrenda**<sup>10</sup> behar bezala beteta, sinatuta eta zigitatuta. Horrekin batera, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) bermatzen dituzten **egiaztagiri guztiak** aurreztu behar dira.

Baldintza-agirian ezarritako estandarrak eta bestelako egiaztagiri batzuk baliokideak direla frogatzea eskaintzaileari dagokio; horretarako, baliokidetzat hori erakusten duten azterlan teknikoak aurreztu beharko ditu.

<sup>10</sup> Kapitulu honetako «Hornitzaileentzako checklista» dokumentua ikusi.

Eskuragarri: <http://www.ihobe.eus/> > Jarduera eremuak > Erosketa Publiko Berdea

## **X. Eranskina: enpresaren konpromiso etikoaren ziurtagiri-eredua**

(OHARRA: enpresaren lege-ordezkariek sinatu behar du agiri hau, eta enpresaren paperean inprimatu behar da. Agiri hau eredu bat besterik ez da).

Behean sinatzen duenak, .....k, (NAN zk:.....),..... helbidean dagoen ..... enpresaren ordezkari den aldetik, eta bere ardurapean, ....., en nombre y representación de la empresa..... con domicilio social en....., bajo su responsabilidad,

### **ZIURTATZEN DU:**

Enpresa hauek egin eta hornitzen dutela azken produktua: (Horietako bakoitzaren helbidea, zenbakia, hiria, udalerrria, telefono-zenbakia, harremanetarako pertsona eta herrialdea adierazi behar dira)

- a)
- b)
- c)
- ....

Bermatu egiten dugula LANE-ren Adierazpenean jasotako laneko printzipio eta funtsezko eskubideak errespetatuz egin direla jantzien ekoizpenean erabilitako ehunak eta berariazko materialak, eta jantziak berak (bertakoak edo azpikontratazio bidez eginak), eta, bestalde, enpresaren kudeaketa-politikak ingurumena eta laneko arriskuen prebentzioa aintzat hartu dituela.

Alderdi hori egiaztatzeko, idatzi honekin batera agiri hauek aurkezten ditugula:

- Jokabide-kodearen ziurtagiria (SA 8000 / Fair Wear Foundation edo baliokidea) edo
- Kanpoko enpresa independenteek egindako ikuskaritza-ziurtagiria (horrekin batera enpresa ziurtagiri-emailearen izena, helbidea, telefono-zenbakia eta harekin harremanetan jartzeko datuak) edo
- Ikuskaritza enpresak berak egin badu, bertan sortutako agirien adierazpena (adierazi zer estandar eta kontrol-prozedura erabili dituen).

Halaber, egiaztatzen dugu (50 langile baino gehiagoko enpresentzat bakarrik) gaur egun enplegua eskuratzeko zailtasuna duten pertsonak ari direla lanean enpresa honetan (adierazi kopurua), hau da, ezaugarri hauetakoren bat duten langileak: emakumezkoak, 16 eta 30 urte bitarteko gazteak, 45 urtetik gorakoak, % 33 edo gehiagoko minusbaliotasuna aitortu zaienak, gizarteratzeko gutxieneko errenta jasotzen dutenak, etorkinak, adin txikikoak babesteko erakundeetatik etorritakoak,

birgaitzeko eta/edo gizarteratzeko bidean dauden drogazaleak edo alkoholikoak eta enplegua eskuratzeko aukera duten pertsona espetxeratuak (baldintzapeko askatasuna dutenak edo preso ohiak).

Halaber, egiaztatzen dugu lankidetzeta-hitzarmena dugula gizarteratze-enprekin eta/edo enplegu zentro bereziekin.

Hala izatekotan, enpresari buruzko informazioa eta harekin harremanetan jartzeko datuak eman (helbidea, zenbakia, hiria, udalerria, telefono-zenbakia, harremanetarako pertsona).

Sinadura  
Enpresaren zigilua